



Laudioko EAJko Udal Taldea

LAUDIOKO EAJ-PNV UDAL TALDEAREN ORDEZKO BOZERAMAILE MAIDER BASTERRA IBARRETXEK AURKEZTU DUEN MOZIOA OSOKO BILKURAN EZTABAIDATZEKO ETA ESKATZEKO GOGORA INSTITUTUARI LAUDIO UDALERRIAK JASOTZEA 2018RAKO MEMORIA PLAZA PROIEKTUKO FASE IBILTARIA:

JUSTIFIKAZIOA:

Gogora, Memoria, Elkarbizitza eta Giza Eskubideen Institutua gauzatzen ari den askotariko jardueren barruan dago, memoria Plaza izeneko proiektuaren fase ibiltaria. 2015ean hasi zenenetik, programa hori gure geografiako plaza ugaritak ibili da. Ekimen horren helburua bada herritarren memoria-lekukotzak jasotzea, idatziz edo telefono mugikorraz grabatuak, euren memoria eta bizitza-eskarmentu propioaz.

Lekukotza horiek, gero Gogora Institutuaren webgunean ostatu egiten dira, eta badituzte hiru kategoria hauek: emozioak, lekukotzak eta proposamena.

Kanpainaren amaieran, jasotako ekarpenen multzoa biltzen da **Gogora, Memoria, Elkarbizitza eta Giza Eskubideen Institutuan**.

Gure iritziz memoria eraikitzea lan partekatua eta anitza denez, pertsona guztiok dugu eskubide eta bagaude zeregin horretan parte-hartzeko gonbidatuta. Edozein pertsona da memoriaren parte.

Azaldutakoagatik, hona Udalbatzaren Osokoak hartu duen **ERABAKIA**:

BAKARRA: Eskatzea Gogora-ri, Eusko Jaurlaritzako Memoria, Elkarbizitza eta Giza Eskubideen Institutuari, 2018 urtean Memoria Plaza izeneko herritarren parte-hartze ekimena egingo den udalerrien arteko bat Laudio izan dadila.

Laudio, 2017ko uztailak 17

Sinatuta: Maider Basterra Ibarretxe

EAJ-PNV Laudioaren ordezeko bozeramailea